



**Travel-Up SL**

## **Kostuen egitura**

Kostuen egitura gure negozioa aurrera eramateko erabiltzen ditugun ondasun eta zerbitzu guztien kostuak osatzen dituzte. Enpresak hainbat kostuei aurre egin behar die, haien artean;

- Kostu finkoak, saldu edo ez berdin mantentzen diren kostuak dira. Hemen gure lokalaren errenta ipiniko genuke adibidez.
- Kostu aldakorrak, aldatu egiten direnak ondasun eta zerbitzuaren bolumenak aldatzen direnean. Hemen, aldi baterako kontratatutako informatiko espezializatu bat, zerbitzu jakin baterako, ipini ahalko genuke adibidez.

Kostuen egituren bi negozio-eredu mota nagusi bereizten dira, beren kostu-egitura kontuan hartuta. Alde batetik, balioan oinarritutako negozio-ereduak, eta bestetik, kostuak bultzatutako negozio-ereduak.

Gure enpresa azken eredu honen barruan kokatuko genuke. Honek kostuak minimizatzea bilatzen duelako, hau da, lortu nahi dutena kostu egitura ahalik eta baxuen mantentzea da, kostu gutxitan oinarritutako politika komertzialak erabiliz.

Gure enpresa eredu honetan jarriko genuke haren helburu nagusia kostu gutxien izatea delako. Gu gastu baxu horiek lortuz, gure bezeroei zerbitzu merkeak eskuratzeko gaitasuna ematen diegu, eta hori da gure agentziaren helburu nagusia.

**Balantze egoera:**

<b>AKTIBOA</b>	<b>ONDARE GARBIA + PASIBOA</b>
<b><u>Aktibo ez-korrontea</u></b> :..... <b>36.070</b>	<b>Ondare Garbia (O.G)</b> :..... <b>17.350</b>
<u>-Ibilgetu materiala:</u> - Eraikuntza:.....24.350 - Altzariak.....5.650 -Ekipamendu informatikoak.....4.780  <u>-Ibigeltu ukiezina:</u> -Programa informatikoak.....1.290	-Kapital Soziala:.....15.000 -Subentzioak.....2.350
<b><u>Aktibo Korronte</u></b> :..... <b>8.930</b>	<b>PASIBOA</b> :..... <b>27.650</b>
<u>Erabilgarria:</u> - Bankua:.....8.930	<b><u>Pasibo ez-korrontea</u></b> :..... <b>25.000</b>
<b><u>Aktibo totala</u></b> :..... <b>45.000</b>	<u>Epe luzeko zorrak:</u> - Kreditu erakundeekiko zorra (2 urte).....25.000
	<b><u>Pasibo korronte</u></b> :..... <b>2.650</b>
	<u>Epe laburreko zorra:</u> -Kreditu erakundeekiko zorra (4 hilabete).....2.650
	<b><u>Pasibo totala+Ondare garbia</u></b> :..... <b>45.000</b>